

## PROGRAMA: EKIMEN EKINTZAILEEN SUSTAPENA ENPRESEN FINKAPENA 2024

Xedea	2022ko eta 2023ko ekitaldietako autoenpleguari buruzko dekretuetan babestutako enpresen jarraitutasuna bultzatzea eta haien finkapena indartzea.
Erakunde onuradunak	34/2022 eta 162/2022 Foru Dekretuen kontura "enpresak martxan jartzeko eta sortzeko laguntzak" diru-laguntza esleitu zitzairen erakundeak.
Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:	<p>Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira 2023ko uztailaren 29tik 2024ko uztailaren 30era bitartean gauzatzen diren ekintza hauek:</p> <ol style="list-style-type: none"><li><b>Komunikazio eta marketin</b> arloko plan bat egitea enpresaren jarduerarekin lotuta.</li><li>Enpresaren lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten <b>digitalizazio</b>-jardueretatik eratorritako gastuak.</li><li>Enpresa-jarduera hobetzeko <b>prestatuntza-gastuak</b>.</li><li><b>Laguntza tekniko espezializatuko zerbitzuak</b> kontratatzearen ondoriozko gastuak, honako helburu hauek dituztenak: enpresaren bideragarritasuna hobetzea, edo merkatuan edo negozioaren garapenean duen kokapena hobetzen laguntzea, produktua, zerbitzua edo prozesua hobetzeko berrikuntza, nazioartekotzearen bideragarritasuna, erantzukizun soziala edo ingurumen-eragina.</li></ol> <p><b>Diru-laguntza honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira</b> administrazio-kudeaketako eta zerga-, lan-, finantza- eta kontabilitate-aholkularitzako zerbitzu arruntak, zergak, tasak, prezio publikoak eta inbertsioak.</p>
Diru-laguntzaren zenbatekoa	<ol style="list-style-type: none"><li>Entitate onuradunak lor dezakeen gehieneko dirulaguntza 2.000 eurokoa izango da.</li><li>Diruz lagun daitezkeen ekintzak 2023ko uztailaren 29tik 2024ko uztailaren 30era bitartean gauzatu beharko dira.</li></ol>
Arautegia	<p><a href="#">Bizkaiko Foru Aldundiaren 217/2023 FORU DEKRETUA, abenduaren 28koa</a>. Laguntzak emateko, <b>norgehiagoka araubidea</b> erabiliko da.</p>
Epeak	<p><b>Ekintzak egiteko epeak:</b> Diru-laguntza jasotzen duten ekintzak 2023ko uztailaren 29tik 2024ko uztailaren 30era egin beharko dira</p> <p><b>Eskabideak aurkezteko epea eta modua</b> Eskabideak aurkezteko epea 2024ko martxoaren 11n hasiko da, 09:00etan, eta 2024ko uztailaren 30ean amaituko da, 13:30etan. Eskabideak Internet bidez aurkeztu beharko dira, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtuala erabiliz. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartu behar da (<a href="http://www.ebizkaia.eus">www.ebizkaia.eus</a>), eta bertan Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko sailaren bulego birtuala aukeratu.</p>